



MUSIKA

Tempo garratz eta kiribilduak



LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKUKO HITZA



BRAULIO BRAULIO

AUTOEKOIZPENA

IKER BARANDIARAN

zaten dira tarteka halako sorpresa atseginak eszenan. Horixe bera gertatu zait izen sobera arrunta eta ustez arrastorik uzten ez duena daukan talde honekin. Buelta erdia ematen dio bila ari garenok aspaldian aurkitzen ez dugunari. Eta hara non, proiektu berri honen errudun aspaldiko zakur zaharrak: Norman taldearen sortzaile Kepa ondarrutarra eta Alex eibartarra, makina bat taldetan ibilitako Ruben ondarrutarra lagun.

Ezagutu ez zenutenontzat Norman izan zen Eibarko Legarreko lokaletan sortutako talde rockero ireki eta ero samarra, nire ustez behintzat Dead Kennedys eta M-Ak eskizo batzuetatik gogoz edanda oso proposamen interesgarria landu zuena. Eroegia rockeroentzat eta punk eta hardcorearen zama astunegia

esperimentazioaren zaleentzat. Itzela zen taldea, ezer kaleratu aurretik finalista izan zen bai Danbaca zein Bilbo Hiria lehiaketetan. Bide propioa egin zuen, axolagabeki. Gero eta eroagoak, basatia-goak eta pertsonalagoak ziren hiru disko kaleratu ostean itzali zen zoritxarrez.

Bada, taldeko gitarra Kepak etxe inguruan talde berria sortzea erabaki zuen. Poliki-poliki kantak idatzi eta hirukotea osatu du Normanen aritutako Alex baxu-jotzaile fidelarekin (eta eroarekin) eta Ruben eskarmentudun bateriarekin. Emaitza bost kantaz osatutako EP hau, Ondarroako AME estudioan Axular Arizmendiren laguntzarekin zuzenean grabatutakoa.

Norman-en baino tempo lasaiagoak landu nahian hasi zen Kepa idazten, baina eskizo tonua ezin du alboratu. Bospa-

sei minutuko kantak dira, lehengo indarra eta abiadura motelduta, intentsitatea eta garratzasuna irabazten dutenak.

Gorputz-ek dena dauka: iluntasuna, erritmo aldaketa asko, Inoren Ero Ni-rekiko ahaidetasuna, post-rocka, barru-barruko melodia eta batez ere esentzia instrumentala. *Natura*-k ere erritmo aldaketa jostari handiak ditu, baina gai da Mike Watt upel bete batetik aterata funky-post-destroia egiteko, zeinak koro goxoentzat lekua egiten duen. *Karroña*-k bi kapitulu ditu: intentsitate eta indarra biderkatzen duen sasi jazz zikin eta kiribiltua, eta ondoren, popetik post-rock noisera igarotzeko bidezidor ustez laburra. Azkenik, *Eroa*-k dirudi nolana eta kostata abiadura moteldu nahi duen Norman-en sasikumea. ●